

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Jendaurrean jartzea zabor bilketako zerbitzu publikoa ematearen tasaren 2020ko lehen seihi- lekoaren errolda, eta kobrantza epea irekitzea

Eginda dago zabor bilketako zerbitzu publikoa ematearen tasaren 2020ko lehen seihi-
lekoaren errolda. Hortaz, honen bidez, errolda hori jendaurrean jarriko da hamabost egun balio-
dunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, interesa dutenek aztertu
ahal izan dezaten eta, hala badagokio, egoki deritzeten alegazioak eta erreklamazioak aurkeztu.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsizat emango da, eta hasiera
emango zaio kobratzeko aldiari.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko otsailaren 20tik apirilaren 20ra.

B) Betearazte aldia: 2020ko apirilaren 21etik aurrera.

Betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu
murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko
6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik,
baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenez, udalean eskatu ahal izango dute
helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan
udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinaraz-
teko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze-
ko errekurtsioa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko
epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2020ko urtarrilaren 13a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ